





# Literatura unibertsala

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAIN TASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herril  
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2013

LITERATURA UNIVERSAL

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.  
Pregunta 2: 2 puntos.  
Pregunta 3: 3 puntos.  
Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

2013 JUNIO

LITERATURA UNIVERSAL

## TESTUA

– Guraso maiteak -esan zuen arrebak, sarrera gisa mahai gainean ukabilkada itzel bat emanetz–, honek ezin du horrela jarraitu. Zeuek ulertzen ez baduzue, neu ohartzen naiz horretaz. Munstro honen aurrean, ez dut nire nebaren izena aipatu ere egin nahi; eta, horregatik, hauxe baino ez dut esango: ezinbestekoa da bera gaintetik kentzea. Gizalegez posible zirenak eta ez zirenak ere egin ditugu bera zaindu eta jasateko, eta ez dut uste, hau horrela izanik, inoren gaizkirik txikiena ere entzun behar dugunik.

– Mila aldiz duzu arrazoia –esan zuen orduan aitak.

Ama, oraindik arnasestuka zebilela, isilean eztulka hasi zen, eskua bularrean zuela eta begirada zoro antzera galduta zuela. [...]

– Behintzat berak ulertuko bagintu –esan zuen aitak.

Baina arrebak, etengabe negar eginez, indartsuki eragin zuen eskua, horrela adierazi nahian ez zutela horretan pentsatu ere egin behar.

– Behintzat berak ulertuko bagintu –jarraitu zuen aitak esaten, begiak itxiz, aditzera emanetz bera ere ziur zegoela hau ezinezkoa zela–, agian berarekin akordio batera heldu gintezke. Baina egoera honetan...

– Ezinbestekoa da berak hemendik alde egitea –esan zuen arrebak–. Hauxe da bide bakarra, aita. Gregorio dela pentsatzeari uztea besterik ez duzu egin behar. Hori sinistu izana da, hain zuzen, gure zorigaitz honen arrazoia. Zelan izan liteke hau Gregorio? Bera balitz, dagoeneko ulertuko zuen ez dela posible gizaki bizidun batzuk halako zomorrotan batekin batera bizitzea. Eta berari bururatuko zitzaion alde egitea. Neba galduko genuke, baina bizitzen jarraituko genuke, eta gogoan edukiko genuke. Baina horrela, animalia honek jarraitu egiten gaitu, apopiloak bidali egiten ditu etxetik eta argi eta garbi adierazten du etxe guztiaz jabetu nahi dela eta gu kanean utzi nahi gaituela. Begira, aita –hasi zen bat-batean oihuka–, berriro ere hasi da!

Eta Gregoriori ulertezina iruditu zitzaion beldurra adieraziz, arrebak ama bertan utzita alde egin zuen, besaulkitik urrundu zen, Gregoriorengandik hurbil egotea baino ama sakrifikatzea nahiago zuela adieraziz, eta aitaren atzean babestera joan zen korrika; aita, era berean, bere jokabide honengatik asaldaturik, zutitu egin zen, arrebaren aurrean besoak luzatuz, hau babesteko keinua eginez.

Baina kontua da Gregoriori ez zitzaiola burutik pasa ere egin inor beldurtzea, ez eta gutxiago bere arreba beldurtzea. Egin zuen gauza bakarra izan zen bere logelara bueltatzeko buelta ematea, eta hori izan zen, zalantza barik, besteak izutu zituena, izan ere, minduta zegoenez gero, mugimendu zail hori egiteko burua lurrean jarri eta bertatik altxatu behar zuen. Gelditu egin zen eta bere ingurura so egin zuen. Bazirudien bere asmo ona ulertu zutela: gertatutakoa momentuko ezustea baino ez zen izan.

Orain guztiek begiratzen zuten tristeki eta pentsakor. Ama bere besaulkian zegoen, hankak bata bestearen kontra bere aurrean luzaturik eta begiak nekearen nekez ia itxita zeuzkala. Aita eta arreba bata bestearen ondoan zeuden eserita, eta arrebak aitaren sama inguratzen zuen bere besoarekin.

[...] Harritu egin zen bere logelaraino zegoen distantziaz ohartzean; ezin zuen ulertu, bere egoera ahul hartan, zelan izan zen gai, minutu gutxi batzuk lehenago, ia nabaritu gabe bide berori egiteko. Ahalik eta lasterren narrastea beste ardurarik ez zuela, ez zen konturatu familiako inork ez zuela zirikatzen hitz edo oihuekin.

Atalasea heldu zenean, ordea, atzera begiratu zuen, eta ohartu zen bere atzean denak jarraitzen zuela berdin. Arreba soilik zutitu zen.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2013ko EKAINA

**LITERATURA UNIBERTSALA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

2013 JUNIO

**LITERATURA UNIVERSAL**

Eta bere azken begirada azkenean lo geratu zen bere amari zuzendu zion.

Logelan sartu zeneko, atea zarratu eta txingetaz eta giltzez itxi zutela nabaritu zuen. Honek sortu zuen zarata zakarrak hain beldurtu zuen, ezen hankak ere tolestu egin zitzaizkion. Arreba zen hainbesteko presa zuena. Zutik geratu zen, logelan sartu eta atea ixteko zelatan egongo bailitzan. Gregoriok ez zuen hurbiltzen sumatu.

– Azkenean! –oihu egin zien berak gurasoei, sarrailan giltzari buelta ematen zion bitartean.

– Eta orain? –galdetu zion Gregoriok bere buruari iluntasunean bere ingurura begiratzen zuelarik.

Handik gutxira konturatu zen guztiz ezinezkoa zitzaiola mugitzea. Honek ez zuen harritu: lehen, oster, ez zitzaion normala iruditzen, ordura arte egin zuen legez, hankatxo mehe haiekin aurrera egiteko gai izatea. Beste guztiari zegokionez, gutxi gora-behera gustura sentitzen zen. Egia zen gorputz osa minduta zuela; baina sentitzen zituen min haiek gero eta ahulagoak ziren, eta pentsatzen zuen, azkenean, amaituko zirela. Jada ez zuen ia sentitzen bizkarrean zeraman sagar usteldua, ezta zuriz estalitako hantura ere. Emozioz eta maitekiro pentsatzen zuen bere senideengan. Bere arreba bera baino ziurrago zegoen desagertu egin behar zenez.

Eta gogoeta eta arduragabetasun lasai hartan egon zen goizaldeko hiruretan elizako erlojuak jo zuen arte. Oraindik gozatu ahal izan zuen egunsenti horren hasiera. Beranduago, berak nahi ez bazuen ere, bere burua guztiz hondoratu zen eta bere muturretik azken arnasa bota zuen.



## A AUKERA

1. Maitasun-lirika Erdi Arotik Errenazimentura. Italian zentratuz, azaldu itzazu korrante eta egile nagusiak, historiaren eta kulturaren une bakoitzari dagokionez zer ezaugarri dituzten erakutsiz, eta maitasun-sentimenduaren adierazpide poetikoan gertatzen diren aldaketak adieraziz. (3 puntu).
2. Identifikatu goian idatzitako pasarteak zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatua dagoen. Historiaren une hori kontuan hartuz, adierazi zer arte- eta filosofia-korronterekin duen erlazioa obrak, eta justifikatu erlazio hori. (2 puntu).
3. Jar ezazu erlazioan pasarteak obraren ezaugarri tematiko eta formalekin, honetan zentratuz:
  - a) Protagonistaren familia osatzen duten pertsonaien karakterizazioa eta bilakaera.
  - b) Narrazio-teknika: narratzailearen ahotsa eta ikuspegia.(Bi kasuetan, beharrezkoa da testutik ateratako adibideak ematea) (3 puntu)
4. Zure ustez, zer mezu atera daiteke obra honetatik? Uste duzu baduela gaurkotasunik oraindik? Hala uste baduzu, zer zentzutan? Argudia ezazu erantzuna, eta jar ezazu erlazioan zeure bizipenekin eta zeure mundu-ikuskerarekin. (2 puntu)

## B AUKERA

1. Azaldu itzazu antzinako tragedia grekoaren ezaugarri nagusiak, eta koka ezazu bere une historikoa eta bere kultura-koordinatuetan. Aipa itzazu gutxienez bi obra eta bi egile adierazgarri. (3 puntu).
2. Identifikatu goian idatzitako pasarteak zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan kokatua dagoen. Datu horietatik abiatuz, koka ezazu obra egilearen literatura-produkzioaren testuinguruan eta harekin erlazioan dagoen arte-korrontearekin. Aipa dezakezu korrante horren adierazgarri den beste arte-obraren bat? (ez du, nahitaez, literaturakoa izan behar) (2 puntu)
3. Jar ezazu erlazioan pasarteak obraren sinbolismo orokorrarekin, kontuan izanik zer pentsamendu-korronteren barnean dagoen. Obraren ehundura sinbolikoaren zer elementu dira bereziki nabariak pasarte honetan? Interpretatu ezazu, sinbolismo horretatik, testuko esaldi hau: "Logelan sartu zeneko, atea zarratu eta txingetaz eta giltzez itxi zutela nabaritu zuen". (3 puntu)
4. Zer iritzi duzu protagonistak eta gainerako pertsonaiek bizitzea egokitu zaien ohiz kanpoko gertaera horren aurrean duten erreakzioari buruz? Nola interpretatzen duzu protagonistaren erru-sentimendua? Zer adierazten dute, zure iritzi, jarrera horiek? Azaldu ezazu erantzuna zeure bizipenekin eta zeure jarrerarekin erlazioan jarri. (2 puntu)



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### LITERATURA UNIBERTSALA

#### ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

##### OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

##### A AUKERA

###### 1. galdera (3 puntu)

- Danteren lirika eta *Dolce stil nuovo* ezagutzea, eta bere testuinguru historiko eta filosofikoan kokatzea. 1,5 puntu.
- Petrarkaren lirika eta Erdi Aroko poesiaren aldaketan daukan eragina ezagutzea: 1,5 puntu.

###### 2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Espresionismo alemaniarra ezagutzea, Kafkaren lana haren barnean kokatuz: 0,5 puntu
- Obra filosofia existentzialistarekin lotzea: 0,5 puntu

###### 3. galdera (3 puntu)

- Pertsonaiak eta haien eboluzioa identifikatzea (batez ere, arrebarrena), testuak adierazten duena kontuan izanik, eta testuaren aipamen bat, gutxienez, erabiltzea: 1,5 puntu
- Obraren narratzailea identifikatzea. Nolakoa den eta haren ikuspegia azaltzea: 1,5 puntu

###### 4. galdera (2 puntu)

- Bere interpretazioa, iritzia, modu koherentean adieraztea, eskatutako gailan kokatuz.
- Bere iritzia argudio, adibide edo bere bizipenekin indartzea.
- Obraren esanahiaren gaurkotasuna argudiatzeko eta ikusteko gai dela erakustea.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### **B AUKERA**

#### **1. galdera (3 puntu)**

- Greziako tragedia bere une historikoan kokatzea eta haren jatorriak adieraztea: 0,5 puntu
- Haren ezaugarri nabarmenenak (gai eta pertsonaien deskripzioa, gutxienez) erakustea: 1,5 puntu
- Bi obra eta bi idazle aipatzea: 1 puntu

#### **2. galdera (2 puntu)**

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzea: 1 puntu.
- Espresionismo alemaniarra ezagutzea, Kafkaren lana haren barnean kokatuz: 0,75 puntu
- Beste lan espresionistaren baten izenburua ematea: 0,25 puntu

#### **3. galdera (3 puntu)**

- Obraren sinbolismoa ezagutzea eta filosofia existentzialistarekin lotzea: 1 puntu
- Pasartean bi elementu sinboliko, gutxienez, identifikatzea: 1 puntu
- Aipatutako esaldian atearen eta gelaren sinbolismoa ezagutzea: 1 puntu

#### **4. galdera (2 puntu)**

- Pertsonaien portaerari buruz duen iritzia argudiatuta ematea.
- Protagonistaren erru-sentimendua interpretatzea eta bere bizipen eta jarrerekin lotzea.